

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

**Sinaturiko kontratuen %92a
behin-behinekoa da**

**8.354 pertsona
enplegu erregulazioa jota**


**Euskal ekonomiak
haziz jarraitzen du**

**Lanorduaren produktibitate
desberdina EBko estatuetan**

**Txirotasun arriskua handiagoa
Espainiar estatuan**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	AZKEN HILEE-TAKO JOERA	12 HILABETE LEHENAGO	2002
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA						
JARDUERA TASA	%	03 II	69,24	IGOERA	67,9	69,06
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	2001	69	MANTENDUA	68,9	68,9
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	03 II	1.135.300	IGOERA	1.124.900	1.129.400
ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	03 II	896.000	IGOERA	896.900	896.100
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	03 II	31,46	IGOERA	32,28	32,01
" EUROPAKO BATASUNA	%	2001	13,2	-	-	13,2
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	03 II	95.600	JAITSIERA	85.600	101.200
LANGABEZI TASA	%	03 II	7,79	JAITSIERA	7,09	8,24
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 EKAI	8	MANTENDUA	7,7	7,8
ELGEko "	%	03 EKAI	7,3	MANTENDUA	7,0	7,1
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	03 II	20,5	MANTENDUA	16,17	18,96
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 EKAI	15,7	MANTENDUA	15,1	15,1
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	03 II	10,73	JAITSIERA	11,01	11,58
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 EKAI	9	MANTENDUA	8,7	8,8
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-ABUZ	594.917	-	-	216.026
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-ABUZ	47.859	-	-	20.039
ENPLEGU ERREGULAZIOA						
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	03 URT-APIR	171	IGOERA	127	423
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-APIR	8.354	IGOERA	2.849	8.130
LAN ISTRIPUAK						
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	02 URT-EKAI	34.267	JAITSIERA	36.453	70.736
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	02 URT-EKAI	466	JAITSIERA	505	923
ESKAINZA ETA ESKARIA						
PRODUKZIO INDUSTRIALA EAEn	% ALD.	03 URT-UZT	1	IGOERA	-1,2	-0,8
JARDUERA INDUSTRIALA NAFARROAn	% ALD.	03 EKAI	6,6	IGOERA	4,3	9,0
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	03 II	78,8	JAITSIERA	80,2	82,1
BPGa EAEn	% ALD.	02 IV	2	IGOERA	2,2	1,8
BEGa NAFARROAn	% ALD.	03 I	3,1	MANTENDUA	2,5	2,8
BPGa ESTATUAN	% ALD.	02 II	2,1	MANTENDUA	2,1	2,1
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	03 II	0,5	JAITSIERA	1	1,4
PREZIOAK						
12 HILEETAKO KPIa ESTATUAN	%	03 ABUSTUA	3	IGOERA	3,6	4
" EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 UZTAILA	1,8	MANTENDUA	1,9	2,2
*Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da						
92. zbk. Egoeraren Azterketa 2003ko iraila						



Aurkibidea

SARRERA3

EGOERA SOZIAL

ETA EKONOMIKOARI

BURUZKO IRUZKINAK4

1. Enplegua 2003ko lehenengo seihilekoan4
2. Enpleguari eta ekonomiari buruzko hainbat adierazle5
3. EAEko kontu ekonomikoak 2002an5
4. Ekonomiaren bilakaera6

HIL HONETAKO PUNTAKO GAIAK

1. Produktibitate ezberdina ordun berdin batentzat7
2. Pobrezia arrisku altuagoa Espainiako estatuan7

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketaren 92. zenbaki honetan Hego Euskal Herriko enpleguari buruzko informazioa aztertuko dugu urteko bigarren hiruhilekorako, eta baita urteko lehen sei hile hauetan beronek izandako bilakaera ere.

Besteak beste, sinaturiko kontratu guztiekiko behin-behinekoek duten portzentaia altua aztertuko dugu, eta baita ematen ari diren erregulazio espediente ugariak ere, guzti hau, ekonomi hazkundera ematen ari den bitartean. 2002 ekitaldirako EAEko kontu ekonomikoen azterketak, bertoko egoera hobeto ezagutzen lagunduko digu. Hileko puntako gaien artean, estatu ezberdinetako orduko produktibitate ezberdinak aztertuko ditugu, eta baita Europako Batasunarekiko espainiar estatuak transferentzia publikoetan duen defizita ere.

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

** Txosten hau 2003.eko irailaren 16an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da.*

1. Enplegua 2003ko lehenengo seihilekoan

Egoeraren Azterketaren atal honetan, Hego Euskal Herrian urteko bigarren hiruhilekoan enpleguak izan duen egoerari buruzko informazioa aztertuko dugu, bai eta aurten iragandako zatian izan duen bilakaera ere.

Bigarren hiruhilekoan, 16 eta 65 urte bitarteko kolektiboaren **jarduera tasa** %69,24koa izan zen, hau da, 2002ko azken hiruhilekoan (%69,06) baino 2 hamarren altuagoa. Gizonen jarduera tasa (%80,15) emakumeena (%58,16) baino 22 puntu handiagoa da oraindik ere.

Lanean dabilen biztanleria 1.135.300 lagunekoa izan da; horren arabera, 2003ko lehenengo sei hilabeteetan, 5.700 lanpostu sortu dira. Lanean dabilen biztanlerian emakumeak %40,3 baino ez diren arren, generoen arteko aldea txikiagotu egin da seihilekoan zehar, lanean dabilen gizonak 3.000 gutxiago direlarik, lana duten emakumeak 8.700 gehiago dira eta. Beraz, seihileko horretan izan den enplegu-sorrera emakumeen kolektiboan jazo da.

Lanean dabilen biztanleria **sektorez sektore** aztertuta ikus daitekeenez, lana duen biztanleriaren %59,6k, hau da, 676.400 lagunek, zerbitzuen sektorean dihardu. Bigarren sektorea industria da, lanean dabilen biztanleriaren %27,8 (315.500 lagun) biltzen du eta. Horren ostean, eraikuntza sektorea dator, lana duen biztanleriaren %9,7rekin, hots, 110.100 pertsonarekin. Azkena lehen sektorea da, 33.400 biztanleri (%2,9) ematen diona lana. Sektore bakoitzak izan duen bilakaerari dagokionez, urtarriletik ekainera bitarte sortu diren lanpostu gehienak eraikuntzakoak dira (7.200). Lehen sektorean, bestalde, 500 lanpostu sortu dira, industrian 800 lanpostu eta zerbitzuen sektorean 1.000 lanpostu galdu direlarik.

Alokairupeko biztanleriari dagokionez, bere horretan mantendu da seihilekoan zehar, 896.000 lagunekin (alokairupeko emakumeak 10.100 gehiago dira; gizonak, berriz, 10.200 gutxiago). Beraz, alokairupeko biztanlerian izan den hazkundera autonomoek, kooperatibistek, enpresariak edo jarduera ekonomikoetan laguntzen duten enitartekoak osatutako kolektiboan gertatu da soilik. Alokairupekoak ez diren emakumeen kolektiboak, ordea, 1.400 lagun gutxiago ditu, gizonenak 7.200eko igoera izan duelarik.


Alokairupeko tasa %78,9koa izan da, 2002aren amaierakoa baino 4 hamarren txikiagoa, alegia. Emakumeen alokairupeko tasa (%83,65) 65 hamarren hazi da; gizonena (%75,73), aldiz, 1,17 puntu jaitsi.

Enpleguaren kalitatea aztertzea ahalbidetzen diguten aldagaietako bat aztertzean, Hegoaldean, **behin-behinekotasun tasa** %31,46koa izan dela ikusten dugu, hau da, 2002aren amaierakoa (%31,02) baino 5 hamarren baxuagoa. Gizonen behin-behinekotasun tasak 0,5 puntuko igoera izan du seihilekoan zehar (%26,7tik %27,24ra), emakumeena 2,28 puntu jaitsi delarik (%39,4tik %37,1era); datu horren eraginez, gizonen eta emakumeen behin-behinekotasun tasen arteko jautzia txixixeagoa da orain, nahiz eta oraindik oso handia izan. Gazteen kolektiboaren behin-behinekotasun tasa %68,5ekoa da, 6 hamarren igo ondoren.

Langabezian dauden pertsonak 95.600 izan dira urteko bigarren hiruhilekoan, hau da, 2002ko urtealdiaren amaieran baino 5.600 gutxiago. Langabe horietarik, 40.800 (langabeen kolektiboaren %42,7) gizonak dira, eta 54.800 (%57,3), emakumeak. Emakumeen kolektiboaren langabeziak izan du beherapen handiena, aurreko urtealdiko laugarren hiruhilekoaren aldean, gizonetzko 1.700 langabe gutxiago eta emakumezko 3.800 gutxiago daude eta.

Urteko bigarren hiruhilekoan, **langabezi tasa** %7,79koa izan da, hots, 2002ko azken hiruhilekoan izandakoa baino 0,45 puntu txikiagoa. Gaur egun, Hego Euskal Herriko langabezi tasa Europako Batasunekoak (%8,1) baino 2 hamarren txikiagoa da. Egitate hori gizonen langabezi tasak (%5,7) eragiten du, Europako gizonena (%7,3) baino 1,6 puntu txikiagoa da eta; emakumeen langabezi tasa (%10,73), ordea, Europako emakumeena (%9) baino 1,7 handiagoa da. Datu hori gogoratzea bereziki garrantzitsua da, izan ere, enplegu-sorrerari eta behin-behinekotasunari dagokienez, seihilekoan bilakaera emakumeen kolektiboarentzat onuragarria izan den arren, langabeziari buruz Europako Batasunarekiko dugun jautzia emakumeen kolektiboak eragiten baitu oraindik ere; halaber, emakumeen behin-behinekotasun tasak gizonena baino ia 10 puntu handiagoa izaten segitzen du.

EBren aldean ikusten den beste ezberdintasun bat gazteriaren **langabezi tasan** islatzen da, Hego



Euskal Herrikoa (%20,5), oraindik ere, Europakoa (%15,7) baino 4,8 puntu handiagoa da eta. Aztertu diren kolektibo guztietarik, gazteria da, hain zuzen, seihilekoan emaitzarik txarrenak izan dituen, langabezi tasa igo izanari behin-behinekotasunak izan duen hazkundera erantsi zaio eta.

2. Enpleguari eta ekonomiari buruzko hainbat adierazle

2003ko urtarriletik abuztura bitarte, 594.917 **lan-kontratu** sinatu dira Hego Euskal Herrian; horietatik, bakarrik 47.859 izan dira mugagabeak. Horren arabera, epealdi horretan sinatutako kontratuen %92 aldi baterakoak izan dira. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar inolako lan-kontraturik gabe diharduten langileen kolektiboa.

Enplegu erregulazioari dagokionez, aldaketa estatistikoa egon da: orain arte "onartutako espediente" deitu izan zaienei "baimendutako espedienteen fitxa" esango zaie aurrerantzean. Horrelakoak 171 izan dira 2003ko urtarriletik apirilera bitarte, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 44 gehiago. Baimendutako espedienteen fitxa horiek 8.354 pertsonari eragin die aipatutako lau hilabete horietan zehar, 2002ko lehenengo lau hilabeteetan baino 5.505 gehiago. Kopuru horrek adierazten duenez, kaltetuak 2002ko urtealdi osoan erregulazioak jo zituenak baino 224 gehiago dira. Datu kezagarri horiek argi islatzen dute langileriaren zati garrantzitsu batek aurre egin behar dion errealitate gordina. Gainera, ez dugu ahaztu behar espediente horietako asko mozkinak lortzen ari diren enpresetan gertatzen direla, horientzat "langileez libratzea" (aldi baterako nahiz behin betiko) mozkinak gehitzeko bide bat da eta.

Aurtengo lehenengo sei hilabeteetan **lan-istripuak** izan dituzten pertsonak 34.267 izan dira, iazko aldi berean baino 2.186 gutxiago, alegia. Ezbeharren kopurua Nafarroan jaitsi da batez ere. Istripu larriak eta hilgarriak ere, 39 gutxiago izan dira aurten, 2003ko urtarriletik ekainera bitarte jazotakoak 466 izan baitira, 2002ko 505en aldean. Dena den, ezbehar kopururik handiena duen sektorean, eraikuntzan, istripuak ugaritu egin dira.

Ekonomiaren bilakaera erakusten duten indizeek ez dute joera argirik islatzen. 2003ko urtarriletik uztaiera bitarteko aldian, EAEko **Produktio Industrialaren Indizeak** %1eko igoera izan du

iazko aldi berarekin erkatuta. Horrek joera-aldaketa adierazten du, 2002ko indizea %-1,2 izan zen eta. Nafarroako **Jarduera Industrialaren Indizeak** %6,6ko hazkundera izan du urtarriletik ekainera arteko aldian, 2002ko aldi berarekin alderatuta, urte bat lehenagoko %4,3koaren aldean. EAEn, **Produktio Ahalmenaren Erabilera** %78,8koa izan da bigarren hiruhilekoan, lehenengo hiruhilekoarekiko (%80,1) nolabaiteko jaitziera erakusten duena.

Prezioek, bestalde, puntu erdiko igoera izan dute abuztuan, gehien igo direnak Aisia eta kulturaren taldekoak (%1,6) eta, ondoren, Janari eta alkoholik gabeko edarien taldekoak (%0,9) izanik. Igoera hori bereziki handitzat har dezakegu, izan ere, abuztuan, merkealdiko hiletako bat izanik, Jantzi eta oinetakoen taldean %0,7ko jaitziera egon dela ikusita.

Urtean metatutako prezio-igoera %1,1ekoa da, eta urtearteko tasa, %3koa. Horren arabera, prezioen igoera 2002koa baino apalagoa izan den arren, ez dirudi gobernu espainiarraren aurreikuspena (%2) bete egingo denik, oraingoan ere.

3. EAEko kontu ekonomikoak 2002an

Atal honetan, EAEko Kontu Ekonomikoak aztertuko ditugu, erkidegoko ekonomiak 2002ko urtealdian izan duen egoera ezagutu ahal izateko. EAEko **Barne Produktu Gordinari** buruz 2002. urterako emandako aurrerapena 44.927,9 milioi eurokoa izan zen; horrek BPGaren %1,7ko hazkunde erreala (prezioen igoeraren eragina kenduta geratzen den gehikuntza) adierazten du.

Sortutako aberastasuna bere agregatuetan oinarrituta aztertzen badugu, BPGaren osagai nagusia kontsumoa dela ikus dezakegu, horri 33.412 milioi euro eta osokoaren %74,4 dagozkiorarik. Barne eskariaren beste osagaia, inbertsioa, 12.294 milioi eurokoa eta BPGaren %27,4koa izan zen 2002an. Bi horien batura, hau da, barne eskaria, 45.706,5 milioi eurokoa izan zen, sortutako aberastasun osoa baino handiagoa, hain zuzen ere. Horren arrazoa kanpoko saldoa da (EAEtik kanpora egingako esportazioak ken EAEtik kanpoko inportazioak), EAEko ekonomiari 778,6 milioi euroko saldo negatiboa ekarri ziona. Esportazioak (28.808,3 milioi euro) inportazioak (29.587 milioi euro) baino txikiagoak izan ziren.

**ESKARIAREN AGREGATUAK
(MILIOI EUROTAN). EAE, 2002**

AGREGATUA	BALOREA	%
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	33.412.112	74,4
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	12.294.377	27,4
BARNE ESKARIA	45.706.489	101,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	28.808.340	64,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	29.586.960	65,9
KANPOKOEKIKO SALDOAK	-778.620	-1,7
BARNE PRODUKTU GORDINA	44.927.869	100

Iturria: Eustat

2002an, EAEko ekonomiako sektore nagusia **zerbitzuen** izan zen, 25.886 milioi euroekin, sortutako aberastasunaren %57,6 bildu zuelarik. Horri industriak jarraitu zitzaion, 12.960 milioi euro eta osokoaren %28,8arekin. Ondoren, eraikuntza sektorea letorke, 3.272 milioi euro eta %7,3arekin, eta, azkenik, nekazaritza eta arrantza sektorea, 0,5 milioi euro eta osokoaren %1,1arekin (kopuruek ez dute %100 osatzen, ehuneko horretara iristeko, zergak eta beste zenbait alderdi batu beharko liriateke eta).

**ESKARIAREN SEKTOREAK
(MILIOI EUROTAN). EAE, 2002**

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	486,5
INDUSTRIA	12.960,4
ERAIKUNTZA	3.272,2
ZERBITZUAK	25.886,5

Iturria: Eustat

BPGaren banaketa lurraldez lurralde aztertuta, aberastasun handiena Bizkaiak sortu zuela (EAEn sortutako BPGaren %50,14) ikus daiteke. Bigarrena Gipuzkoa izan zen (%33,22), eta azkena, Araba (%16,63).

4. Ekonomiaren bilakaera

Atal honetan, Hego Euskal Herriko ekonomiak azken hiruhilekoetan izan duen bilakaera aztertu eta Europako inguru ekonomikoarekin erkatu egingo dugu.


Hasteko, aipatu behar da EAEk 2003an izan duen **ekonomi hazkundeari** buruz ez dagoela informazioziorik, onartezina bada ere. Dena den, gure ustez, 2002an hiruhilekoz hiruhileko gertatutakoa aztertzea oso interesgarria da. Izan ere, bigarren

eta hirugarren hiruhilekoetan zehar, BPGak izan zuen urtearteko hazkundera aurreko hiruhilekoetakoa baino txikiagoa izan bazen ere, urtealdia BPGaren %2ko hazkundeko gorakadarekin amaitu zen.


Nafarroako ekonomiak, bestalde, hazkunde handiagoak islatu izan ditu. Beraz, 2002 osoan zehar, BPGaren urtearteko gehikuntza hazkorra izan zituen aurreko hiruhilekoekiko. 2003ko lehenengo hiruhilekoan, BPGaren hazkundera %3,1ekoa izan zen, 2002ko azken hiruhilekoan bezala. Beraz, ezin da esan ekonomia nazioartean jasaten ari den moteltzeak eragin handirik duenik Nafarroako ekonomian.

EBko ekonomiak, 2002an, BPGaren urtearteko igoera hazkorra izan bazituen ere, igoera horiek beherakorra dira 2003an zehar. Izan ere, 2003ko lehenengo hiruhilekoan, BPGa %1 hazi zen 2002ko aldi berarekin alderatuta, eta bigarrean, %0,5. Grafikoan ikusten den beheranzko kurbak kontrakoa pentsarazi ahal badigu ere, gogoran izan behar dugu BPGaren urtearteko gehikuntzei buruz ari garela, eta gehikuntza horiek direla aurreko hiruhilekoetakoak baino txikiagoak direnak. Beraz, ez dugu ahaztu behar ekonomiak hazten segitzen duela, lehen baino gutxiago hazten bada ere, Hego Euskal Herrian batez ere.

**BPGAREN URTEARTEKO GEHIKUNTZAK.
EAE, NAFARROA, EB. 2002-03**



Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat



1


Produktibitate ezberdina ordun berdin batentzat

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OITek) argitaratu duen "Lan Merkatuko Adierazlerik Garrantzitsuenak" izenburuko azterlanean, urtean pertsona bakoitzak batez-beste lan egindako orduen kopurua ezagutarazi da, hainbat estatutako datuetan oinarrituta. Kontuan izan behar dugu informazio hori ez dela guztiz erkagarria, ez baita aintzat hartzen estatu bakoitzean lanaldi partzialeko kontratuek duten pisua, baina baliagarria izan daiteke estatu bakoitzean egiten diren lanorduen kopuruari buruzko ideia egiteko. Batez beste, lanordu gehien egiten diren estatua Txekiako Errepublika da (1.980), horren atzetik Eslovakia (1.978) eta Grezia (1.934) datozelarik. Lanordu gutxien egiten diren estatuak, berriz, Holanda (1.340), Norvegia (1.342) eta Alemania (1.444) dira. Espainiako estatua (1.807) Estatu Batuen (1.815) atzean dago.

Are interesgarriagoa da azterlan horrek lanorduek estatu bakoitzean dakarren produktibitateari buruz ematen duen informazioa. Ondorengo taulan, estatu bakoitzeko orduko produkzioa ikus daiteke (Amerikako Estatu Batuetako dolarretan neurtua). Produktorik handiena Norvegiakoa da (38,11\$), bigarrena Frantziakoa (35,28\$), hirugarrena Belgikakoa (34,36\$) eta laugarrena Estatu Batuetakoa (32,43\$). Txikiak, bestalde, Txekiako Errepublikakoa (10,47\$), Mexikokoa (10,83\$) eta Esloveniako (12,10\$) dira. Espainiako estatua (22,09\$) nahiko toki txarrean geratzen da, aztertutako gainerako estatuekin alderatuta.

Oro har, pertsonako urteko lanorduen kopurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da estatu horretako orduko produkzioa. Horregatik, lanordu bera ezberdin baloratzen da dirutan, estatuaren, produkzio motaren, merkataritza-erlazioaren eta abarren arabera, eta, ondorioz, estatu batzuek besteek baino lanordu gehiago egin behar dituzte ekonomi etekin bera lortzeko. Erlazio horretan, Estatu Batuak salbuespen dira, egindako lanorduen kopurua handi samarra den arren, orduko produkzioa ere nahiko handia da eta.

ORDUKO PRODUKZIOA (AEBETAKO \$-TAN).



Iturria: OIT

2

Pobrezia arrisku altuagoa Espainiako estatuan

Eurostategen Europako Batasuneko estatuetako pobrezia-arriskuaren eta bazterketa sozialaren adierazle zehatz batzuei buruzko taula argitaratu zuen; adierazle horietako batzuk diruarekin loturikoak dira (pobrezia finantzarioa), eta beste batzuk ez (bazterketa sozialaren enplegu, hezkuntza eta osasun alderdiak).

Diruarekin loturiko adierazleei dagokienez, taula horretako informazioaren arabera (1999koa), Espainiako estatua %23ko pobrezia-arriskua luke, gizarte-transferentziak burutu aurretik. EB osoa hartuta, arrisku hori %24koa zen. Beraz, transferentzia horiek egin aurretik, Espainiako estatuko pobrezia-arriskua Europako batez bestekoa baino txikiagoa da.

Gizarte-transferentziak eginda, arrisku hori 9 puntutan txikiagoa da EBn (%24tik %15era); Espainiako estatuan, aldiz, jaitsiera 4 puntukoa da soilik (%23tik %19ra). Beraz, Europako ingurukoekin alderatuta, transferentzien aurretik

Espainiako estatuak erakusten duen pobrezia-arrisku txikiagoa arrisku handiago bihurtzen da laguntza publikoen transferentzien ondoren. Horrek agerian uzten ditu Espainiako estatuko langabezi prestazioen, ezintasunagatiko ordain-sarien, familientzako prestazioen eta abarren maila eskasa eta defizita. Berez, Greziako eta Italiako laguntza publikoek baino ez dute Espainiakoek baino eragin txikiagoa (1 puntu eta 3 puntu, hurrenez hurren). Pobrezia-arriskuaren portzentajeari dagokionez, transferentziak egindakoan, Erresuma Batukoa Espainiako estatukoa bestekoa da, eta Greziakoa eta Portugalekoa (%21) baino ez dira altuagoak. Arriskurik txikiena Suediak dauka (%9), eta ondoren, Danimarkak, Alemaniak, Holandak eta Finlandiak (%11).

Diruarekin loturiko beste adierazlea pobrezia-arrisku iraunkorra da (hots, aurreko hiru urteetatik gutxienez bitan pobrezia-arriskuan egotea), eta Espainiako estatua Italia eta Erresuma Batuaren ondoan jartzen du, %11ko arriskuarekin, EBko batez bestekoa baino 2 puntu gorago, hain zuzen ere. Irlandak (%12), Greziak (%13) eta Portugalek (%14) baino ez dute pobrezia-arrisku iraunkor handiagoa.

Taulak **diruarekin loturik ez dauden adierazleei** buruzko informazioa ere ematen du, 2001ekoa. Horietako bat iraupen luzeko langabezi tasa da (12 hilabete baino gehiagoz langabezian egotea, alegia). Tasa horri dagokionez, Espainiako estatuko portzentajea %3,9 da, EBko batez bestekoa (%3,1) baino 8 hamarren handiagoa. Iraupen luzeko langabezi tasa handiagoa duten bakarrak Alemania (%4, 2000ko informazioaren arabera), Grezia (%5,4) eta Italia (%5,8) liriateke.

Langabeziaren iraupena handitu ahala, bazterketa sozialeko arriskua handitu egiten da. Espainiako estatuan, oso iraupen luzeko (24 hilabete baino gehiagoko) langabeziaren portzentajea %2,3 da, EBko batez bestekoa baino 3 hamarren handiagoa. Bakarrik Alemaniak (%2,6, 2000ko informazioaren arabera) eta Italiak (%4,3) dute hori baino portzentaje handiagoa.

Pertsona baten langabezi egoerak, pertsona hori ez ezik, horren familia ere baztertzen du. Horrekin bat, taulan ikus daitekeen azken adierazlea ordainduriko lanpostu bat duen inor ez dagoen etxeetan bizi den jende-portzentajea da. Adierazle horri dagokion tasa %8,1ekoa da Espainiako estatuan, EBko batez bestekoa

(%12,2) baino 4,1 puntu txikiagoa. Datu hori ez dator bat aurretiaz aztertu bat biekin; beraz, pentsa daiteke horren arrazoia Espainiako estatuko familien tamaina gainerako estatuen multzoan baino handiagoa izatea dela, besteak beste, gazteak, beranduago emanzipatzen direlako.

POBREZIA ETA BAZTERKETA SOZIALAREN ADIERAZLE SORTA (%)

	Diruarekin loturiko adierazleak. 1999			Diruarekin lotuta ez dauden adierazleak. 2001		
	Pobrezia-arriskuaren %			Iraupen luzeko langab.	Iraupen oso luzeko langab.	Enpleg. gabeko etxeetan
	Gizarte transf. baino lehen	Gizarte transf. ta gero	Pobrezia arrisku iraunkorra			
EB	24	15	9	3.1	2.0	12.2
BELGIKA	25	13	8	3.2	2.2	16.5
DANIMARKA	24	11	5	0.9	0.3	:
ALEMANIA	21	11	6	4.0*	2.6*	13.8
GREZIA	22	21	13	5.4	3.1	10.5
ESPAINIA	23	19	11	3.9	2.3	8.1
FRANTZIA	24	15	9	3.1	1.7	13.0
IRLANDA	30	18	12	1.3	0.8	10.0
ITALIA	21	18	11	5.8	4.3	11.9
LUXEMBURGO	24	13	8	0.5*	0.2*	8.9
HOLANDA	21	11	5	0.9	:	9.7
AUSTRIA	23	12	7	0.8	0.4	9.9
PORTUGAL	27	21	14	1.5	0.8	5.0
FINLANDIA	21	11	5	2.4	1.3	:
SUEDIA	28	9	:	1.0	:	:
ERRESUMA BATUA	30	19	11	1.3	0.7	14.2

* 2000ko informazioa. Iturria: Eurostat